



2022/2023 denboraldia

43. ZIRKULARRA

AZKEN JARDUNALDIRAKO ORDUTEGI BATERATUA ETA FINALETAN ETA HALA ESKATZEN DUTEN PARTIDETARAKO ZELAI NEUTRALA IZENDATZEKO ARAUAK

Atxikita daude mailaz igotzeko edo jaisteko azken sailkapenean eragina duten azken jardunaldiko ordutegi bateratuak eta zelai neutrala izendatzeko arauen dokumentuak.

Horren berri ematen dizuegu, jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioetarako.

Donostia, 2023ko maiatza

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General



AZKEN JARDUNALDIRAKO ORDUTEGI BATERATUAK

2022-2023 denboraldia

KATEGORIA	2023/05/07	2023/05/14	2023/05/21	2023/05/28
Gizonezkoen Ohorezko Erregional Maila				Lar. 17:30
Gizonezkoen Gorengo Maila			Lar. 18:30	
Gizonezkoen Erregionalen 1. Mailako igoera fasea			Lar. 18:30	
Gizonezkoen Ohorezko Jubenil Maila			Lar. 16:00	
Gizonezkoen Gorengo Jubenil Maila			Lar. 16:00	
Gizonezkoen Jubenilen 1. Mailako igoera fasea			Iga. 12:00	
Gizonezkoen Ohorezko Kadete Maila			Lar. 11:30	
Gizonezkoen Gorengo Kadete Maila			Lar. 11:30	
Gizonezkoen Kadeteen 1. Mailako igoera fasea			Lar. 11:30	
Mutilen Ohorezko Infantil Mailako txapeldun fasea		Iga. 12:00		
Infantil Txiki txapeldun fasea		Iga. 10:00		
Mutilen Infantilen 1. Mailako txapeldun fasea	Lar. 12,30			
Emakumezkoen Ohorezko Erregional Maila			Lar. 17:30	
Emakumezkoen Gorengo Mailako igoera fasea		Lar. 17,30		
Emakumezkoen Ohorezko Kadete Mailako jaitsiera fasea		Lar. 15,30		
Emakumezkoen Kadeteen 1. Mailako igoera fasea			Iga. 12:00	
Nesken Infantilen 1. Mailako txapeldun fasea	Lar. 11,00			

*Ordutegi bateratuen araua herrien arteko 50km baino distantzia handiagoko arauaren gainetik dago.



FINALETAN ETA BEHAR DEN KASUETAN ZELAI NEUTRALA **IZENDATZEKO ARAUAK**

Finalak antolatzerakoan klub parte-hartzaileen artean egondako desadostasunen ondorioz eta bizitako tentsio egoerak ekiditeko, Gipuzkoako Futbol federazioak Lehiaketa Batzordearen aginduetara honako hau erabaki du:

1. Gipuzkoako Futbol Federazioko Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordeari dagokio zelai neutraleko partidak izendatzea.
2. Finaletarako zelaia, eguna eta ordua Lehiaketa Batzordeak izendatuko ditu, federazioko organo teknikoen gomendioak entzun ondoren.
3. Izendapen akordio hau, bete beharrezko akordioa izango da eta berehalako balioa izango du. 7 eguneko epea egongo da akordioaren aurkako errekurtsioa Kirol Justiziako Euskal Batzordeari aurkezteko. Gorengoan Epaitegira egindako errekurtsioaren aurkezpenak ez du, Epaitegiak aurkakoa esaten ez badu behintzat, izendapenaren bete behartasuna gelditzen.
4. Arau hauen bidez izendatutako partidara ez joatea, Euskadiko Futbol Federazioko Disziplina Araudiko 47 artikulua eta Eskola Kiroleko Disziplina arautzen duen 391/2013 Dekretuko 165.J artikulua dioenaren arabera, ez agertze gisa kontsideratuko da.

Idatzi honek hartutako erabakiaren betebeharrak berariazko balioa du eta horrela jasota geratzen da.